

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4373

*EBAZPENA, 2018ko uztailaren 17koa, Kulturako sailburuordearena, EAEko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen aurreproiektuaren entzunaldi-izapideak egiteko eta proiektua jendaurrean jartzeko dena.*

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikulua xedatzen duenez, «Herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira».

Aipaturiko lege-proiektuaren onarpenak herri-administrazioei eragingo die nagusiki, dokumentu publikoak eta horiek administratzeko sistemak arautuko dituen neurrian, baina eragina izango du, baita ere, partikularrengan, dokumentu-ondareaz eta dokumentaziorako sarbideaz diharduelako.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin bat etorritz, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzen da, eta, horretarako, hogeitun egun balioduneko epea nahikoa dela jotzen da; epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldutakoagatik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarritzen dituen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 3.2.e) eta 10 artikuluen arabera, hau

### EBAZTEN DUT:

1.– Jendaurrean jartzea Ebazpen hau EAEko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Artxiboen Legearen aurreproiektua, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Bidezko interesa duten pertsona fisiko eta juridikoen, publiko edo pribatuen, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren egoitzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Vitoria-Gasteiz; tel.: 945 01 94 70) eta Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki taulan (euskadi.net), kontsultatu ahal izango dute Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen Legearen aurreproiektuaren edukia, eta egokitze jotako alegazio, dokumentu eta egiaztagiriak aurkeztu ahal izango dituzte epe horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 17a.

Kulturako sailburuordea,  
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.